



INGURUMEN ADIERAZPENA

Urtarrila - abendua 2023

EUSKO JAURLARITZA ETA EUROPAR BATASUNA 2014-2020
ESKUALDE GARAPENERAKO EUROPAR FUNTSAREN (EGEF)
BITARTEZ KOFINANTZIATUTAKO ERAGIKETA



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtsa (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

AURKIBIDEA

1. Araziren aurkezpena	5
• Enpresaren aurkezpena	
• Araziren instalazioen kokapena	
• Organigrama	
2. Kudeaketa sistemaren aurkezpena	9
• Irismena	
• Araziren ingurumen politika	
• Ingurumen-kudeaketako sistemaren deskribapena	
3. Araziren testuingurua eta plangintza	14
• Araziren testuingurua	
• Plangintza	
4. Langileek parte hartzeko programa	22
5. Ingurumen kudeaketa programa	23
• 2023ko “ingurumena hobetzeko plana”	
• 2023ko “ingurumena hobetzeko plana”ren jarraipena	
• Sektoreko erreferentziazko dokumentuak	
• 2024ko “ingurumena hobetzeko plana”	
6. Erakundearen ingurumen-portaeraren bilakaera	29
• Energia eraginkortasunari buruzko datuak	
• Materialen kontsumoaren eraginkortasunari buruzko datuak	
• Uraren kontsumoari buruzko datuak	
• Hondakinei buruzko datuak	
• Biodibertsitatea eta lurzorua okupazioa	
• Isuriei buruzko datuak	
• Kexak eta salaketak	
7. Ingurumen-legeria betetzearen laburpena	55
• Irekitzeko lizentzia	
• Hondakinak	
• Isurketak	
• Isuriak	
• Suteetatik babesteko instalazioak	
• Girotzeko ekipoak	
• Instalazio elektrikoak	
• Eraginkortasun energetikoa	
• Zarata	
8. Ingurumen-adierazpenaren ezaugarriak	61
• Ingurumen-egiaztatzaile kreditatuak deklarazioa baliozkotzea	

1. ARAZIREN AURKEZPENA



1.1. ENPRESAREN AURKEZPENA

Arazi kudeaketa, heziketa eta komunikazio arloko diziplina anitzeko lantaldeak osatzen du, eta 1998tik ondare kulturala eta naturala balorean jartzen dihardu lanean.

ARAZIk honako zerbitzuak eskaintzen ditu eta bere JESN kodea 7490 da.

Kudeaketa

- Museo eta interpretazio zentroyen kudeaketa.
- Bitartekaritza zerbitzua.
- Zentroyen dinamizazio ekintzak.
- Gida-hezitzaile zerbitzuak.
- Aholkularitza eta idazkaritza teknikoa.
- Ekitaldien antolaketa eta garapena.
- Elkarteen kudeaketa eta dinamizazio ekintzak.

Heziketa

- Eskolako Agenda 2030.
- Hurren Hiria.
- Euronet 50/50.
- Prest Gara online ikastaroak.
- Unitate didaktikoen diseinu eta garapena.
- Ikasleak sentsibilizatzeko programak.
- Idazkaritza teknikoa: informazio eta arreta zerbitzua heziketa programetan parte hartzen dutenei eta erreserba eta kaptazio zerbitzua.
- Hezitzaile zerbitzua.

Komunikazioa

- Komunikazio gabinete lanak.
- Community Manager zerbitzua.
- Diseinu digitalak: web, emailing, bideogintza...
- Diseinu grafikoa: Marka irudia, eskuorri, aldizkari, panelak.
- Marrazkigintza.
- Ondarearen interpretazio eta seinaleztapen lanak.
- Sentsibilizazio kanpainen diseinu eta garapena.

Gure enpresak azken urteetan izandako bilakaera onak gure bezeroen gogobetetze-maila handia erakusten du, gure kalitate-estandarra eta zerbitzu-eskaintza baloratzen dituztelarik. Etorkizunean gogobetetze hori bermatzen jarraitzeko eta merkatuaren eskakizun gero eta handiagoei aurre egiteko, lehen aipatutako jarduerak barne hartzen dituen EMAS araudiarekin bat egiten duen ingurumen-kudeaketako sistema ezarri dugu.

1.2. ARAZIREN INSTALAZIOEN KOKAPENA

ARAZIren instalazioak Zarautzen (Gipuzkoa) aurkitzen dira, Nafarroa hiribidean 37 B-n.

ARAZIren instalazioak, aireko argazkia




ARAZIren instalazioen eraikinaren argazkia



1.3. ORGANIGRAMA

ARAZIren antolaketa funtzionala honako organigraman laburtzen da:



ARAZIren ingurumen-kudeaketaren teknikari arduraduna Nerea Ibáñez da, eta honako eginkizun eta erantzukizunak ditu:

- Enpresaren ingurumenari dagokion dokumentazio guztia kudeatzea eta eguneratzea.
- Ingurumen-kudeaketako sistema (IKS) osatzen duten dokumentu guztien garapena eta kontrola koordinatzea.
- Langile guztiei ingurumen-kudeaketako sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa ematea.
- Etengabeko hobekuntza egiten dela bermatzea.
- Erakundearen egunerokoan sortzen diren ingurumen-gaiak zuzentzea.
- Erakundearen ingurumen-jardueraren jarraipena egitea.
- Ingurumen-legeria betetzen dela ziurtatzea.
- Erakundearen ingurumen-politika egitea.
- Helburuak eta xedeak finkatzea.
- Erakunde osoa ingurumenaren zaintzari buruz prestatzea eta sentsibilizatzea.
- Erakundearen bezeroek dituzten ingurumen-itxaropenak identifikatzea.
- Hornitzaileen ingurumen-jarduera zein izango den zehaztea.

Harremanetarako:

Helbidea: Nafarroa hiribidea 37B
 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 833 641
 Posta elektronikoa: arazi@arazi.eus

2. KUDEAKETA SISTEMAREN AURKEZPENA



2.1. IRISMENA

Arazi IKT, SL enpresak Zarauzko Nafarroa kalearen 23 zenbakian duen bulegoan garatzen diren kudeaketa, heziketa eta komunikazio jarduerak.

2.2. ARAZIREN INGURUMEN POLITIKA

ARAZIk azken urteetan izandako bilakaera onak gure bezeroen gogobetetze-maila handia dela erakusten du. Etorkizunean gogobetetze hori bermatzen jarraitzeko eta jasangarritasunaren inguruan dugun erantzukizuna gure gain hartzeko, garapen ekonomikoa eta ingurumenaren babesa bateratu behar ditugu. Helburu hori bermatzeko, ARAZiko Zuzendaritzak, enpresako pertsonekin batera, ingurumena babestera bideratuta dauden honako jarraibideak garatu ditu:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat garatzea eta ezartzea, gure jarduerak sistematikoki planifikatzeko eta kontrolatzeko funtsezko tresna gisa, prozesu, instalazio, produktu eta zerbitzuei lotutako ingurumen-inpaktuak gutxitzeko, bizi-zikloaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik.
- Gure jarduerari aplika dakiekeen ingurumen-legeria eta araudia, eta erakundeak sinatzen dituen bestelako ingurumen-baldintzak betetzea.
- Etengabeko hobekuntzarako, kutsaduraren prebentziorako eta ingurumena babesteko dugun konpromisoa bermatzea, gure ahaleginak aplikatutako prozesu-tekniken ingurumen-bateragarritasun handiagoa bilatzera bideratuz. Horretarako, eskaintzen ditugun zerbitzuak eta hauen azken kudeaketa ahalik eta ekologikoena izatea kontuan izango dugu, eta lehengaiak eta baliabide naturalak neurrian erabiliko ditugu.
- Ingurumena babesteko eta etengabe hobetzeko helburuak eta jomugak ezartzea, eta horiek garatzeko ingurumen-programak egitea.
- Enpresako ingurumen-jarduna aldizka berrikustea, ahulguneak detektatzeko, beharrezko ekintzak burutzeko eta egindako aurrerapenak dokumentatzeko.
- Enpresako pertsonen gure jarduerari eta haien funtzioei lotutako ingurumen-alderdiei buruzko informazioa, prestakuntza eta motibazioa ematea, lanpostuan duten portaera ingurumenarekiko modu arduratsuan gauza dadin.
- Ingurumen-politika ezartzen dela ziurtatzea, eta ARAZiren beraren eta, oro har, jendearen eskura jartzea.

Zarautzen, 2024ko urtarrilaren 15ean

Sinadura:

ARAZiko Zuzendaritza

Izaskun Isasti

Juanjo Aramburu

Bego Rivero

2.3. INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA

ARAZIren Ingurumen-kudeaketako sistema hurrengo atalek osatzen duten ingurumen-eskuliburuaren bitartez definitzen da:

SARRERA

XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

KONTSULTARAKO ARAUAK

TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK

TESTUINGURUA

Erakundea ezagutzea

Alderdi interesdunen beharrak eta itxaropenak ulertzea

Ingurumen-kudeaketako sistemaren irismena zehaztea

Ingurumen-kudeaketako sistema

LIDERGOA

Lidergoa eta konpromisoa

Ingurumen-politika

Rolak, erantzukizunak eta agintariak

PLANGINTZA

Arriskuak eta aukerak lantzeko ekintzak

Orokortasunak

Ingurumen-alderdiak

Lege-betekizunak eta bestelako betekizunak

Ekintzen plangintza

Ingurumen-arloko helburuak eta horiek betetzeko plangintza

LAGUNTZA

Baliabideak

Eskumena

Kontzientzia hartzea

Komunikazioa

Informazio dokumentatua

OPERAZIOA

Operazioen plangintza eta kontrola

Larrialdien aurkako prestakuntza eta erantzuna

EGINKIZUN-BETETZEAREN EBALUAZIOA

Jarraipena, neurketa, analisia eta ebaluazioa

Barne-ikuskaritzak

Zuzendaritzaren azterketa

HOBEKUNTZAK

Alderdi orokorrak

Desadostasuna eta zuzentzeko ekintza

Etengabeko hobekuntza

Ingurumen-eskuliburua osatzeko, zenbait PROZEDURA daude, zehazki, jarraian zerrendatzen direnak:

PMA 4. Erakundearen testuingurua

PMA 5.3. Ingurumen Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua

PMA 6.1. Arriskuen eta aukeren kudeaketa

PMA 6.1.2. Ingurumen-alderdiak identifikazioa eta ebaluaketa

PMA 6.1.3. Ingurumeneko lege-betekizunen identifikazioa eta jarraipenaren kontrola

PMA 6.2. Ingurumen Helburuen ezarpena eta plangintza

PMA 7.2. Prestakuntza

PMA 7.4. Komunikazioa

PMA 7.5.2. Dokumentuen sorrera, kodifikazioa, kontrola eta banaketa

PMA 7.5.3. Erregistroak artxibatzea

PMA 8.1-01 Etxeko hondakinen kudeaketa

PMA 8.1-02 Hornitzaile eta azpikontratisten kontrola

PMA 8.1-03 Materia, ur eta energia fluxuen kudeaketa

PMA 8.2. Larrialdi-planak eta erantzuteko gaitasuna

PMA 9.1. Jarraipena eta neurketa

PMA 9.2.2. Sistemaren barne-ikuskaritza

PMA 9.3. Zuzendaritzaren azterketa

PMA 10.2. Desadostasunen eta zuzentzeko ekintzen kudeaketa

Ingurumena Kudeatzeko Eskuliburua eta prozedurak osatzeko, JARRAIBIDE batzuk daude, zehazki, jarraian zerrendatzen direnak:

IT 7.5.2-01 Sistemako dokumentuen goiburuen sorrera

IT 8.2-01 Ihesak edo isurketak gertatuz gero jarduteko plana

Azkenik, Ingurumen-eskuliburuan, Prozeduretan eta Jarraibide Teknikoetan deskribatutako ekintzak gauzatu direla erakusten duten ERREGISTROAK daude.

3. ARAZIREN TESTUINGURUA ETA PLANGINTZA



3.1. ARAZIREN TESTUINGURUA

3.1.1. ERAKUNDEA ETA HAREN TESTUINGURUA ULERTZEA

ARAZIk urtero bere helburu eta zuzendaritza estrategikorako egokiak diren kanpo eta barneko gaiak zehazten ditu, Ingurumen-kudeaketako sisteman aurreikusitako emaitzak lortzeko duen gaitasunari eragiten diotenak, bai positiboki bai negatiboki.

ARAZIren eraginpean egon daitezkeen ingurumen-baldintzak ere kontuan izan dira. Horretarako, “AMIA ANALISIA” tresna aplikatzen da, testuinguruaren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aztertzen dituena.

3.1.2. ALDERDI INTERESDUNAK ETA HAIEN BEHARRAK EDO ITXAROPENAK ULERTZEA

ARAZIren testuinguruaren azterketaren zati bat alderdi interesdunak identifikatzea da, baita haien beharrak eta itxaropenak ere.

ARAZIk alderdi interesduntzat hartzen du enpresaren erabaki edo jarduera baten eraginpean egon daitekeen pertsona edo erakunde oro.

ARAZIk urtero identifikatzen ditu alderdi interesdunak, eta haien beharrak eta itxaropenak aztertzen ditu.

3.2. PLANGINTZA

3.2.1. INGURUMEN-ALDERDIAK

Ingurumenarekin elkarreragin dezakeen ARAZIren jarduera eta zerbitzuetako edozein elementu jotzen da ingurumen-alderditzat.

- Zuzeneko ingurumen-alderdiak: ARAZIk alderdi horien kudeaketaren kontrol osoa du (adibidez, baliabideen kontsumoa, instalazioetan hondakinak sortzea, etab).
- Zeharkako ingurumen-alderdiak: ARAZIk ez du alderdi horien kudeaketaren kontrolik (adibidez, ibilgailuen flotaren mantentze-lanak, etab.)

Honakoa da ARAZIn ingurumen-alderdien inguruan ezarritako sistematika:

1. urratsa

- Ingurumen-alderdiak sor ditzaketen prozesuak/lanak identifikatzea
- Lehen definitutako prozesuen/lanen sarrera eta irteeretako alderdiak identifikatzea
- Zuzeneko edo zeharkako alderdiak identifikatzea
- Alderdiak sorkuntza baldintzen arabera sailkatzea (ohikoa, ezohikoa edo arriskutsua)

2. urratsa

- Ingurumen-alderdiak ebaluatzeko irizpideak definitzea

3. urratsa

- Ingurumen-alderdiak ebaluatzea, esanguratsuak zein diren zehazteko
- Ingurumena Hobetzeko Plana ezartzeko esanguratsuak diren ingurumen-alderdiak azaltzea

Lehen aipatutako urratsak urtean behin egiten dira, ingurumen-alderdiak ebaluatzeko irizpideen definizioa izan ezik, hori beharren arabera egingo baita.

Hurrengo tauletan ingurumen-alderdiak eta horiei lotutako ingurumen-inpaktua adierazi dira.

ZUZENEKO ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA 2023

ZUZENEKO ALDERDIAK OHIKO BALDINTZETAN	INPAKTUA
KONTSUMOAK	
A4,A3 papera	Baliabide naturalak agortzea
Eskuko papera	
Tonerra	
Energia elektrikoa	
Ura	
Ibilgailuen erregaia	
HONDAKINAK	
Papera eta kartoia	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrizaleko uren kutsadura
Ontzi arinak	
Hondakin organikoak	
Toner-kartutxoak	
ISURKETAK	
Osasun-arlokoak	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrizaleko uren kutsadura
ISURIAK	
Berotegi-efektuko gasak	Ozono-geruzaren suntsipena Berotegi-efektuaren igoera

ZUZENEKO ALDERDIAK EZOHIKO BALDINTZETAN	INPAKTUA
KONTSUMOAK	
Ekipo informatikoak	Baliabide naturalen agortzea
Bulegoko altzariak	
Pilak	
Luminariak	
HONDAKINAK	
Ekipo informatikoak	Baliabide naturalen agortzea
Bulegoko altzariak	
Pilak	
Luminariak	

ZEHARKAKO ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA 2023

ZEHARKAKO ALDERDIAK OHIKO BALDINTZETAN	INPAKTUA
Bezereen ingurumen-portaera: enpresak, udalerrriak eta Zentro eta Azpiegituretako bisitariak*	Baliabide naturalak agortzea. Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura.
Enpresa hornitzaileen eta azpikontratatuaren ingurumen- portaera*	Ozono-geruzaren suntsipena Berotegi-efektuaren igoera.
Instalazioak garbitzeko produktuen kontsumoa	Baliabide naturalen agortzea
Ur-kontsumoa instalazioak garbitzeko eragiketetan	Baliabide naturalen agortzea
Hondakinak sortzea (garbiketa- produktuen ontziak)	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura
ZEHARKAKO ALDERDIAK EZOHIKO BALDINTZETAN	INPAKTUA
Ibilgailuak mantentzeko produktuen kontsumoa (olioak, ordezko piezak, iragazkiak, etab.)	Baliabide naturalen agortzea
Ibilgailuen mantentze-lanen ondoriozko hondakinak (olio erabiliak, olio- eta erregai- iragazkiak, pneumatikoak, etab.)	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura

ZUZENeko ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA LARRIALDIETAKO BALDINTZETAN 2023

LARRIALDI-EGOERA (Orokorra bulegoan)	ALDERDIAK	INPAKTUAK
Sute arriskua Araziko instalakuntzetan	Isuri atmosferikoak Hondakin ez-arriskutsuen sorrera Hondakin arriskutsuak sortzea	Lurzoruaren eta lurpeko eta azaleko uren kutsadura Ozono-geruzaren suntsipena Berotegi-efektuaren igoera
Uholde arriskua	Hondakin geldoak sortzea Uren isurketa	
LARRIALDI-EGOERA (Orokorra bulegotik kanpo)	ALDERDIAK	INPAKTUAK
Leherketa edo sute arriskua	Isuri atmosferikoak Hondakin geldoak sortzea Hondakin arriskutsuak sortzea	Lurzoruaren eta lurpeko eta azaleko uren kutsadura. Ozono-geruzaren suntsipena.
Isurketa arriskua	Isuri atmosferikoak Erregaia, olioak, etab. ustekabearen isurtzea	Berotegi-efektuaren igoera.

ZUZENeko ALDERDIEN OHIKO BALDINTZETAN

Ingurumen-alderdien ebaluazioa hainbat aldagai kontuan hartuta egiten da, ebaluatu beharreko alderdiaren arabera. Hurrengo taulan, alderdia ebaluatzeko kontuan hartu beharreko aldagaiak adierazten dira

EBALUATU BEHARREKO ALDERDIA	Kalteak edo onurak	Ingurumenaren egoera	Jatorria	Magnitua	Arriskugarritasuna	Amaierako kudeaketa	Helmuga	Ingurumen Legeria	Alderdi interesdunen iritziak
Lehengaiak eta gai osagarriak	X	X	X	X	X			X	X
Ura, Energia elektrikoa eta Erregaiak	X	X	X	X	X			X	X
Hondakinak	X	X		X	X	X	X	X	X
Atmosferara egindako isuriak	X	X		X	X			X	X
Isurketak	X	X		X	X			X	X
Zarata	X	X		X	X			X	X
Zerbitzua	X	X		X	X			X	X

INGURUMEN-ALDERDIAK EZOHIKO BALDINTZETAN

- Ofimatikako materiala (kontsumigarriak zein hondakinak)
- Ibilgailuentzako kontsumigarriak eta ordezeko piezak (olioa, pneumatikoak...)
- Luminarien kontsumoa

Horrelako alderdiak ez dira ebaluatuko, ez baitira oso garrantzitsuak ARAZlren jarduerarako.

INGURUMEN-ALDERDIAK LARRIALDI BALDINTZETAN

Ingurumen-alderdien ebaluazioa hainbat aldagai kontuan hartuta egiten da, ebaluatu beharreko alderdiaren arabera. Hurrengo taulan alderdia ebaluatzeko kontuan hartu beharreko aldagaiak adierazten dira.

EBALUATU BEHARRERAKO ALDERDIA	Kalteak edo onurak	Ingurumenarekiko egoera	Jatorria	Magnitua	Arriskugarritasuna	Amaierako kudeaketa	Helmuga	Ingurumen Legeria	Alderdi interesdunen iritziak
Ihesak edota isurketak	X	X		X	X			X	X
Suteak	X	X		X	X			X	X

Irizpide bakoitzerako lortutako balioak elkarren artean batuko dira, eta, horrela, balio bat lortuko da. Lortutako balioaren eta ebaluatu beharreko alderdiaren arabera, honako taula honetan adierazten den moduan ebaluatuko da alderdia:

EBALUATU BEHARRERAKO ALDERDIA	Irizpideetan esleitutako balioen baturatik lortutako balioa		
	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Lehengaiak eta gai osagarriak	7tik 9ra	10tik 12ra	13tik 21ra
Ura, Energia elektrikoa eta Erregaiak	6 a 8	9 a 14	15 a 18
Hondakinak	8 a 12	13 a 19	20 a 24
Atmosferara egindako isuriak	6 a 8	9 a 14	15 a 18
Isurketak	6 a 8	9 a 14	15 a 18
Zarata	6 a 8	9 a 14	15 a 18
Produktua/Zerbitzua	6 a 8	9 a 14	15 a 18
Ihesak edota isurketak	6 a 8	9 a 14	15 a 18
Suteak	7tik 9ra	10tik 12ra	13tik 21ra

Erakundeak zehazteko duen moduan, ebaluazio-maila ALTUA lortzen duten ingurumen-alderdiak esanguratsuak izango dira, eta lehentasuna izango dute ingurumen-helburuak, -xedeak eta -programak ezartzerakoan.

INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK 2023

Ingurumen-alderdien ebaluazioaren emaitza gisa, alderdi esanguratsu hau ondorioztatu da:

- Toner kontsumoa (Ingurumen-alderdi altua)

3.2.2. LEGE-BETEKIZUNAK ETA BESTELAKO BETEKIZUNAK

Urtero, argitaratutako ingurumen-araudia aztertu ondoren, ingurumen-teknikariak, ingurumen-kudeaketako sistemaren arduraduna den aldetik, PMA 6.1.3-01 “Ingurumeneko lege-betekizunen identifikazioa eta betetze-maila” eguneratzen du. Bertan argi eta garbi adierazten dira gure erakundeari aplikatu dakizkioken lege-betekizunak.

Lege-betekizunak kontrolatzen diren bitartean baldintzaren bat betetzen ez dela edota baimen bat eduki behar dela antzematen bada, gorabehera hori konpontzeko behar diren ekintzak hartuko dira.

3.2.3. EKINTZA PLANGINTZA

ARAZIk badaki zein garrantzitsua den plangintza on bat egitea Ingurumen-kudeaketako sistemak (IKS) aurreikusitako emaitzak lortuko dituela ziurtatzeko.

Hori dela eta, plangintza horretan emango den lehen urratsa, ARAZIn lortu nahi diren ondorioak areagotzeko eta nahi ez direnak prebenitzeko edota murrizteko hartu behar diren arriskuak eta aukerak zehaztea izango da. Kanpoko ingurumen-baldintzen eragina ere kontuan izango da. Honela, etengabeko hobekuntza bermatuko da.

Arriskuak eta aukerak identifikatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko prozesua urtero egingo da, eta honako informazioa hartuko da sarreratzat:

- Identifikatutako ingurumen-alderdiak.
- Lege-betekizunak eta beste baldintza batzuk.
- ARAZIn testuingurua (barneko eta kanpoko gaiak eta alderdi interesdunen beharrak).

4. LANGILEEK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

Langileen parte-hartzea eta kontsulta ahalbidetzeko, ARAZIn barne-komunikaziorako beharrezko bideak ezarri dira, enpresaren maila guztien arteko barne-komunikazio eraginkorra bermatzeko, barne-bileren, posta elektronikoaren eta iragarki-taularen bidez.

Langileen prestakuntzari dagokionez, prestakuntza plan bat garatzen da urtero, eta plan horretan langileek eskatutako prestakuntza-beharrak hartzen dira kontuan.

5. INGURUMEN KUDEAKETA PROGRAMA



5.1. 2023ko “INGURUMENA HOBETZEKO PLANA”

Hobekuntza helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Burutzeko epea	Jarraipen-data
Paper-hondakinen kantitatea murriztea	<ul style="list-style-type: none"> • “Araziko langileen ohitura onak” aurkezpena. • Iragarkiak Araziko barne komunikaziorako iragarkitaulan. • Ahozko azalpenak barne bileretan eta intranet-eko agendaren bitartez. 	Nerea Ibáñez	2023ko urtarrila	2023ko abendua
	<ul style="list-style-type: none"> • Alde bakarretik inprimatutako orriak koadernatzea, papera koaderno moduan berrerabiltzeko. 	Nerea Ibáñez	2023ko urtarrila	2023ko abendua
CO2 Isuriak murriztea: <ul style="list-style-type: none"> • Energia elektrikoa • Erregaiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Energia elektrikoaren jardunbide egokiak zabaltzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Ekipoak itzaltzea, kontsumo fantasma saihesteko. ○ Argiak soilik beharrezkoa denean piztea. 	Nerea Ibáñez	2023ko urtarrila	2023ko abendua
	<ul style="list-style-type: none"> • Garraioaren arloko jardunbide egokiak zabaltzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Garraio publikoa erabiltzea. ○ Online bilerak lehenestea. ○ Autoa partekatzea. 	Nerea Ibáñez	2023ko urtarrila	2023ko abendua

5.2. 2023ko “INGURUMENA HOBETZEKO PLANA”ren JARRAIPENA

Hobekuntza-helburuaren ingurumen-alderdia: Paperaren kontsumoa		
Hobekuntza egin den epea: 2023ko urtarrila-abendua		
INGURUMEN EMAITZAK		
Aldagaia	Termino absolutuak (Kg paper)	Termino erlatiboak Kg paper/langile
Hasierako egoera 2023. urtea	201,25	13,42
Amaierako egoera 2023. urtea	165,99	11,07
Guztizko igoera	-35,26	-2,35
LORTUTAKO HOBEKUNTZA- EMAITZAK	Baldintza okerrenetan sortutako kantitatea	Ez da aplikatzen
	Baldintza onenetan sortutako kantitatea	Ez da aplikatzen
AZKEN EMAITZA		% -18

HELBURUA BETE DA



Hobekuntza-helburuaren ingurumen-alderdia: Kilometrajearen ondorioz sorturiko CO2 isuriak		
Hobekuntza egin den epea: 2023ko urtarrila-abendua		
INGURUMEN EMAITZAK		
Aldagaia	Termino absolutuak Kg CO2	Termino erlatiboak Kg CO2 /langile
Hasierako egoera 2023. urtea	718,59	47,91
Amaierako egoera 2023. urtea	1.578,41	105,23
Gutzizko igoera	859,82	57,32
LORTUTAKO HOBKUNTZA- EMAITZAK	Baldintza okerrenetan sortutako kantitatea	Ez da aplikatzen
	Baldintza onenetan sortutako kantitatea	Ez da aplikatzen
AZKEN EMAITZA		% 120

HELBURUA EZ DA BETE



HOBETZEKO BESTE EKINTZA BATZUK:

- Ingurumena errespetatzen duen bulegoko materiala erabiltzen dugu, eta produktu arriskutsu edo toxikoen erabilera mugatzen edo ezabatzen dugu gure jardueraren garapenean.
- Ura aurrezteko ekipoak eta sistemak ditugu, eta portaera-jarraibideak aplikatzen ditugu ildo horretan.
- Hondakin arriskutsuak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatzen ditugu, garbigunearen edo hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimenduaren bidez behar bezala tratatzeko.
- Hiri-hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak bereizi egiten ditugu, udal-erregimenduetan uzteko, Garbigunera eramateko edo birziklatzaileei emateko.
- Langileei jardueraren ingurumen-inpaktuei eta inpaktu horiek gutxitzeko moduei buruzko Ingurumen-arloko prestakuntzak ematen zaizkie.
- Beste ingurumen-praktika batzuk jarri ditugu abian, edo aurreko puntuetan adierazi ez diren ingurumen-ekimenetan laguntzen dugu: sentsibilizazio-kanpainak, hezkuntza-proiektuak, etab.

5.3. SEKTOREKO ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

http://ec.europa.eu/environment/emas/emas_publications/sectoral_reference_documents___en.htm orrialdean argitaratuta dauden Erreferentzia Dokumentu Sektorialak (EDS) kontsultatu dira, eta ingurumen-zerbitzuen jarduerari aplikatu dakiokeen EDSrik EZ dagoela egiaztatuta ahal izan da.

5.4. 2024ko INGURUMENA HOBETZEKO PLANA

Hobekuntza helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Burutzeko epea	Jarraipen data
Hondakin-kantitatearen murrizketa	Aldebiko inprimaketa	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
	Alde batetik inprimatutako papera berrerabiltzea	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
	Eskuak lehertzeko paperezko eskuzapien erabilera murriztea	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
	Langileak sentsibilizatzea	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
CO2 isurien murrizketa (energia elektrikoa eta ibilgailuen erregaia)	Jardunbide egokiak zabaltzea (energia elektrikoa eta garraioa)	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
	Ekipo eraginkorrak	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
	Argiztapen-sistema eraginkorrak	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
	Araziko taldeak bulegotik kanpo astero egiten dituen bileren aurreikuspena. ibilgailuen erabilera optimizatzeko (autoa partekatzea) helburuarekin. Betiere garraio publikoa lehenetsiko da	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
Erosketa berdea	Gailuak eta lanparak erostea, erosketa berdearen irizpideak kontuan hartuta: <ul style="list-style-type: none"> o Gailuen etiketa energetikoa o LED argiztapena 	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024
	Bulegoko materialean erosketa berdearen irizpideak kontuan izatea	Nerea Ibáñez	Urtarrila 2024	Abendua 2024

6. ERAKUNDEAREN INGURUMEN-PORTAERAREN BILAKAERA




6.1. ENERGIA-ERAGINKORTASUNARI BURUZKO DATUAK

ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOA

Energia elektrikoaren kontsumoa hornitzailearen fakturretatik lortzen da.

		2021	2022	2023
A zifra	Energia elektrikoaren kontsumoa (kWh)	1803	1823	1517
B zifra	Pertsona-kopurua	15	15	15
R= A/B zifra	kWh/pertsona	120,20	121,53	101,13

Energia elektrikoaren kontsumoa: kWh/pertsona



Argindarraren kontsumoa jaitsi da: 2023. urteko kontsumoa 2022koaren %83a izan da, beraz, argindarraren kontsumoaren %17a murriztu da. Grafikoan ikus daitekeenez, 2022ko argindarraren kontsumoa 2021ekoaren oso antzekoa da (adierazlearen % 1,11ko igoera).

ERREGAI-KONTSUMOA

Erregai-kontsumoak Araziko intranet-aren bitartez kontrolatzen dira, PROWIN izenekoa. Horrela, langileek haien lanaldiaren barruan egiten dituzten joan etorriak PROWINen inputatzen dira.


Urtea	Gasolio-kontsumoa (litroak)	kWh (*)	Gasolina-kontsumoa (litroak)	kWh (*)	kWh GUZTIRA
2021	924,7	10.173,57	462,43	4.578,06	14.752,00
2022	765,29	8.418,16	432,53	4.282,00	12.700,00
2023	1.558,03	17.138,31	687,23	6.803,56	23.941,88

(*)Gasolina 0,0099 MWh/litro; gasolioa 0,0110 MWh/litro (Iturria: IDAE)

		2021	2022	2023
A zifra	Erregai-kontsumoa (kWh)	14.752,00	12.700,00	23.941,88
B zifra	Pertsona-kopurua	15	15	15
R= A/B zifra	kWh/pertsona	983,47	846,67	1.596,13

Erregai-kontsumoa: KWh/pertsona

■ 2021 ■ 2022 ■ 2023




Erregai-kontsumoa modu nabarmenean handitu da (%89ko igoera), Araba eta Bizkaian garatzen diren proiektu berriak lortu direlako. Ahal den guztietan, garraio publikoa erabiltzen da, kotxea langileen artean partekatzen da, eta online bilerak egitea lehenesten da. Hala ere, aurrez aurreko saioak egitea beharrezkoa denean eta garraio publikoa erabiltzea ezinezkoa denean kotxea erabiltzen da.

ENERGIAREN KONTSUMOA GUZTIRA

Energiaren guztizko kontsumoa energia elektrikoaren eta erregaietatik eratorritako energiaren batuketatik lortzen da.

Urtea	Energia elektrikoaren kontsumoa (kWh/pertsona)	Erregaietatik eratorritako energiaren kontsumoa (kWh/ pertsona)	ENERGIAREN KONTSUMO GUZTIRA (kWh/pertsona)
2021	120,20	983,47	1103,67
2022	121,53	846,67	968,20
2023	101,13	1.596,13	1697,26

Energiaren kontsumoa guztira: KWh/pertsona



Energia elektrikoaren kontsumoak bilakaera positiboa izan du (%17ko jaitsiera) baina erregaien kontsumoa modu nabarmenean igo da (%89ko igoera). Ondorioz, energiaren guztirako kontsumoak bilakaera negatiboa izan du (%75ko igoera).

2024ko "Ingurumena Hobetzeko Plana" k alderdi honetan eragiteko irtenbideak indartuko ditu honako adierazleak kalkulatu:

- Lanaldiaren barruan garraio publikoa erabiliz egiten diren joan etorrien portzentaia.
- Aurrez aurreko bilerak ospatu beharrean online bilerak ospatu izanaren portzentaia.
- Araziko langileek kotxea partekatuz egin dituzten joan etorrien portzentaia.

Modu honetan, erregai fosilen kontsumoa murrizteko martxan jarritako irtenbideen emaitza neurtu eta urtetik urtera hauen bilakaera aztertzeke aukera izango dugu.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KONTSUMOA GUZTIRA

ARAZIk ez du iturri berriztagarrietako energiarik kontsumitzen eta, beraz, ezin da kontsumoa kuantifikatu.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN SORRERA GUZTIRA

ARAZIk ez du energia berriztagarririk sortzen.

6.2. MATERIALEN KONTSUMOAREN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO DATUAK

A4/A3 PAPER-KONTSUMOA

